Sin./Fdo.: PILAR TRUEBA FERNANDEZ - 2021-10-13
BIDEEN SEGURTASUN.-HOBEKUNTZA-MODERNIZAZ. ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SEGURIDAD VIAL, MEJORA Y MODERNIZACIÓN

Sin./Fdo.: GORKA ESTEBEZ MENDIZABAL - 2021-10-13
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Sin./Fdo.: JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ - 2021-10-13
Ord./Sus.: IMANOL PRADALES GIL
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL
Funtziotan: Ahaldun nagusiaren 157/2021 foru dekretua, irailaren 20koa
En funciones: Decreto Foral del Diputado General 157/2021, 20 de septiembre

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2021-10-19
GZko 7.gaia onartuta - Aprobado, asunto 7) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztatpen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

**ERABAKIA,** BI-2238 errepidean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko proiektua zuzenean onesten duena, 35+600 KPtik 37+000 KPra, Arteagan".

## AURREKARIAK

I. Honako eraikuntza-proiektu hau bidali da Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sustatzeko Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzura, onarpena eman dezan: «BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometro-puntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan» eraikuntza-proiektua.

II. Ahaldun nagusiaren apirilaren 21eko 52/2020 Foru Dekretuaren bidez, "BI-2238 errepidean, 35+600 K.P.tik 37+000 K.P.ra, Arteagan, sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa lasaitzeko eraikuntza-proiektua" onetsi zen, bi milioi zortziehun eta bost mila zortziehun eta laurogeita hamasei euroko (2.805.896,18 €) BEZarekin.

Ondorengo kontratazio-prozeduran, ahaldun nagusiaren abuztuaren 18ko 145/2021 Dekretuaren bidez hutsik geratu zen kontratua esleitzeko prozedura, eskaintzarik aurkeztu ez zelako.

III – Berriro onesteko bidalitako proiektuan berrikusi egin dira prezioak, hainbat lehengairen prezio-igoeraren ondoren egungo merkatuaren errealitatera egokitzeko.

Igorritako txostenean, honako hau azpimarratzen da:

PROIEKTUAREN HELBURUA

Trafikoa baretzeko, bide-segurtasuna hobetzeko eta zeharbideko oinezkoen ibilbidea hobetzeko beharrezkoak diren obrak definitzea eta baloratzea.

**ACUERDO,** de aprobacion directa del proyecto de construcción de "Reordenación de accesos y calmado de tráfico en la carretera BI-2238 del P.K. 35+600 al P.K. 37+000, en Arteaga"

## ANTECEDENTES

I. Se ha remitido al Servicio de Servicios Generales del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, para su aprobación, el Proyecto de construcción de "Reordenación de accesos y calmado de tráfico en la carretera BI-2238 del P.K. 35+600 al P.K. 37+000, en Arteaga".

II. Por Decreto Foral 52/2020 de 21 de abril, del Diputado General, se aprobó el Proyecto de construcción de "Reordenación de accesos y calmado de tráfico en la carretera BI-2238 del P.K. 35+600 al P.K. 37+000, en Arteaga", con un presupuesto con IVA de dos millones ochocientos cinco mil ochocientos noventa y seis euros con diceciocho céntimos (2.805.896,18 €).

En el posterior procedimiento de Contratación se declaró desierto el procedimiento de adjudicación del contrato por Decreto del Diputado General 145/2021, de 18 de agosto, por no haberse presentado ninguna oferta.

III – En el Proyecto que se remite a nueva aprobación se ha procedido a la revisión de los precios para adecuarlos a la realidad del mercado actual tras la escalada de precios en las diversas materias primas.

Del Informe remitido, se destaca lo siguiente:

OBJETO DEL PROYECTO

La definición y valoración de las obras necesarias para crear el calmado de tráfico, la mejora de la seguridad vial y del itinerario peatonal de la travesía.

Proiektuaren esparruan honako hauek sartzen dira:

- Aukeratu den soluzioaren trazaduraren definizio geometrikoa.
- Ukitzen diren zerbitzuak berrezartzeko beharrezkoak diren obrak.
- Obrak gauzatzeko desjabetu edo aldi baterako okupatu behar diren azaleren mugaketa.

- Lurbeteetako eta lubetetako ezponden definizioa.
- Bide-zoruak eta zoladurak.
- Obrak zuinkatzeko oinarrizko datuak.
- Drainatze-lanak.
- Argiztapena.
- Seinaleak, balizak eta segurtasun-hesiak.
- Ingurumena babesteko eta paisaia egokitzeko neurriak.
- Obrak egiteko baldintzak eta segurtasun-neurriak.

- Obrak aztertzea, haien bideragarritasuna bermatuko duen programazio bat barne.
- Egikaritze-obren aurrekontua.

Dentro del ámbito del proyecto se incluye:

- La definición geométrica del trazado de la solución adoptada.
- Las obras necesarias para la reposición de los servicios afectados.
- La delimitación de las superficies que es necesario expropiar u ocupar temporalmente para la materialización de las obras.
- La definición de los taludes de desmonte y terraplén.
- Los firmes y pavimentos de las distintas vías.
- Los datos básicos para el replanteo de las obras.
- Las obras de drenaje.
- Iluminación.
- La señalización, balizamiento y barreras de seguridad.
- Las medidas de protección ambientales y adecuación paisajística.
- Las condiciones para la ejecución de las obras y las medidas de seguridad.
- El análisis de las obras incluyendo una programación de las mismas que garantice su viabilidad.
- El presupuesto de las obras de ejecución.

## AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HAMAIKA MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (2.811.162,59 €) da, eta BEZarekin (% 21), berriz, HIRU MILIOI LAUREHUN ETA BAT MILA BOSTEHUN ETA SEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (3.401.506,73 €).

Lanak egiteko aurrez ikusitako epea 14 hilabete da.

## PRESUPUESTO

El Presupuesto Base de Licitación sin IVA, asciende a la cantidad de DOS MILLONES OCHOCIENTOS ONCE MIL CIENTO SESENTA Y DOS EUROS CON CINCUENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (2.811.162,59 €) y con IVA (21%) asciende a la cantidad de TRES MILLONES CUATROCIENTOS UN MIL QUINIENTOS SEIS EUROS CON SETENTA Y TRES CÉNTIMOS (3.401.506,73 €).

El plazo estimado para la ejecución de las obras es de 14 meses.

## HONDAKINAK KUDEATZEARI BURUZKO AZTERLANA

Eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eta hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoarekin bat, hondakin-kudeaketari buruzko azterketa jaso da proiektuaren barruan, 19. eranskinean, hain zuzen.

## ESTUDIO DE GESTIÓN DE RESIDUOS

De acuerdo con lo dispuesto en el RD 105/2008 de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, el Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición de la CAPV y el Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos, se incluye dentro del proyecto el anejo 19 de Estudio de Gestión de Residuos.

## SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA.

Proiektuaren barruan sartzen da 5. dokumentu bezala, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarri dena betez. Eta bertan ezartzen dira obra gauzatzeko arazoetarako behar diren konponbideen aurreikuspenak eta garapena, eta lan-

## ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD

Se incluye en el proyecto como documento nº 5, en cumplimiento del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de la construcción, y en él se establecen las previsiones y desarrollo de las soluciones necesarias para los problemas de ejecución de la obra, y la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

istripuen, lanbide-gaixotasunen eta hirugarrenei eragindako kalteen arriskuen prebentzioa.

Azterlan hori aplikatuz kontratista, azpikontratista eta langile autonomo guztiek laneko segurtasun eta osasun plana egingo dute eta horretan azterlanean ezarri diren ezarpenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dituzte.

SAILKEPENAREN PROPOSAMENA ETA PREZIOEN BERRISKUSTEA

Proiektuaren memorian obren kontratistak obren adjudikaziodunak izan ahal izateko sailkatuta egon behar duten taldeak edo azpitaldeak ezarri dira.

Prezioen berrikuspena ez da bidezkoa, sektore publikoaren kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103. artikuluan ezarri dena betez.

BIDE-SEGURTASUNAREN AUDITORIA

Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide sareko bide azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 24ko 80/2014 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarri denarekin bat, bide-segurtasuneko auditoriak errepide berrien proiektuaren eta eraikuntzaren zati izango dira, baita aurretik dauden errepideetan funtsezko aldaketak egiteko prozesuena ere.

Horrela, zerbitzu sustatzaileak onesteko bidalitako txostenean jasotzen den bezala, adierazten da esku artean dugun proiektua garatzen den BI-2238 errepidean ez dela beharrezkoa aipatu dekretuan eraikuntza proiektuaren fasean jasotzen den prozedura aplikatzea.

GEOLOGIA, GEOTEKNIA ETA DESJABETZEAK

Zerbitzu sustatzailearen txostenak adierazten du proiektuak Geologia eta Geoteknia 6. Eranskin daukala.

Beste alde batetik, 1. eranskinean, desjabetzeei buruzkoan, ukitzen diren lurzatien taulak jaso dira. Taula horietan, lurzation deskribapena, katastroko datuak, desjabetutako azalera eta balorazioa jaso dira. Halaber, eranskin honetan ageri dira desjabetzeen poligonala definitzen duten puntuen koordenatuak, bai okupazio totalak bai aldi baterakoak.

PROIEKTUAREN IKUSKAPEN-TXOSTENA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Plangintza Zerbitzua Buruak aldeko txostena eman du.

prevención de riesgos de accidentes laborales, enfermedades profesionales y daños a terceros.

En aplicación de este estudio, cada contratista, subcontratista y trabajadores autónomos, elaborarán un plan de seguridad y salud en el trabajo en el que analicen, estudien, desarrollen y complementen las previsiones contenidas en este estudio.

PROPUESTA DE CLASIFICACIÓN Y REVISION DE PRECIOS

Se establece en la memoria del proyecto los grupos o subgrupos en que deben estar clasificados los contratistas de obras para que puedan ser adjudicatarios de las obras.

No procede revisión de precios según el artículo 103 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

AUDITORÍA DE SEGURIDAD VIARIA

De acuerdo con lo establecido en el párrafo tercero del artículo 9 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, 80/2014, de 24 de junio sobre Gestión de la Seguridad de las Infraestructuras Viarias en la Red de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, las auditorías de seguridad viaria formarán parte integrante de los procesos de proyecto y construcción de carreteras nuevas y de los de modificación sustancial de las mismas.

Así, tal y como se recoge en el informe remitido para su aprobación por el Servicio promotor se indica que en la carretera BI-2238 sobre la que se desarrolla el proyecto que nos ocupa, no es necesaria la aplicación del procedimiento recogido en dicho decreto en fase de proyecto de construcción.

GEOLOGIA, GEOTECNIA Y EXPROPIACIONES

El informe del servicio promotor señala que el proyecto dispone de un Anejo nº 6 de Geología y Geotecnia.

Por otra parte, en el Anejo nº 1 de expropiaciones, se incluyen tablas de parcelas afectadas, en las que figura una descripción de las mismas, sus datos catastrales, así como la superficie expropiada y su valoración. Asimismo, se reflejan en este Anejo las coordenadas de los puntos que definen la poligonal de expropiaciones, tanto ocupaciones totales como temporales.

INFORME DE SUPERVISIÓN DEL PROYECTO

Informado favorablemente por el Jefe del Servicio de Planificación del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

INGURUMEN ARLOKO IZAPIDATZEA:

Proiektuari ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren izapidea egin zitzaion, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera.

Prozedura horren ondorioz, 2019ko ekainaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (107. zk.) argitaratu zen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Diputatuaren 2618/2019 Foru Agindua, 2019ko maiatzaren 23koa, «BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometro-puntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan» eraikitzeko proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren txostena egitea ebazten duena.

Foru agindu horretan ondorioztatu denez, proiektu horrek ez dio ondorio kaltegarri handirik eragiten ingurumenari, baldin eta proiektuak betetzen baditu ingurumen baldintzak eta ingurumen eragineko txostenean jasotako neurriak; beraz, ez du ohiko ingurumen ebaluazio baten beharrik izango. Hala ere, txostenak adierazten du nahitaez bete beharko direla proiektuan jasotzen diren neurri babesleak eta zuzentzaileak, proiektuaren ingurumen-agirian jasotakoak eta kontsultatu diren erakundeek adierazitakoak, baita ingurumena zaintzeko programa behar bezala gauzatu ere. Zerbitzu sustatzaileak jakinarazi du proiektua ingurumen organoari bidali zitzaiola, txosteneko ohar guztiak sartu ondorik.

Ingurumena ebaluatzeari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 48. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, ingurumen eraginaren txosteneko neurri babesleak eta zuzentzaileak jasotzen dira ondoren:

— Iparraldeko biribilgunearen inguruko obrak (1+900 k.p.-tik) ez dira egikarituko sai zuriaren ugalketako aldi kritikoan. Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 83/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, aldi kritiko hori martxoaren 1etik irailaren 1era artekoa da. Agindutakoari kalte egin gabe, arreta berezia jarriko da Gautegiz Arteaga inguruan habia jartzen duen bikotearen fenologian, aldi kritikoa zehatzago finkatzeko. Horretarako, proiektuaren sustatzaileak, obrak hasi baino lehen, aipaturiko bikotearen presentzia eta horren egoera fenologikoa egiaztatu beharko ditu espezieian aditua den pertsonalaren analisiaren bidez.

Iparraldeko biribilgunea egikaritzean, erreprodukzioko aldi kritikoa errespetatuko da, eta erreferentzia-bikotearen aldi kritikoa eta egoera fenologikoa zehatz-mehatz definitzen dituen aholkularitza izango da.

TRAMITACION AMBIENTAL

El proyecto fue sometido a trámite de Evaluación Ambiental Simplificada, de acuerdo con la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

Como resultado de dicho procedimiento se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 107, de 6 de junio de 2019, la Orden Foral de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural 2618/2019, de 23 de mayo de 2019, por la que se resuelve formular Informe de Impacto Ambiental del "Proyecto de construcción de "Reordenación de accesos y calmado de tráfico en la carretera BI-2238 del P.K. 35+600 al P.K. 37+000, en Arteaga"

En esta orden foral se concluye que no es previsible que este proyecto vaya a producir efectos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a una evaluación ambiental ordinaria. No obstante, indica el informe, que serán de obligada ejecución las medidas protectoras y correctoras que se incluyen en el mismo, en el Documento ambiental del proyecto y las señaladas por los organismos consultados, así como la correcta ejecución de su programa de vigilancia ambiental. Por el servicio promotor se informa que el proyecto se remitió al órgano ambiental tras incluir todas las consideraciones del informe.

De acuerdo al artículo 48 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, se incluyen a continuación las medidas protectoras y correctoras del Informe de Impacto ambiental:

— Las obras en la zona de la rotonda norte (desde el p.k. 1+900) no se ejecutarán durante el periodo crítico de reproducción del alimoche. Según lo señalado en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 83/2015, de 15 de junio, por el que se aprueba el plan conjunto de gestión de las aves necrófagas de interés comunitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco este periodo crítico comprende del 1 de marzo al 1 de septiembre. Sin perjuicio de lo anterior, se prestará especial atención a la fenología particular de la pareja que anida en las cercanías de Gautegiz Arteaga a fin de determinar con mayor exactitud el periodo crítico. Para ello el promotor del proyecto deberá, antes del inicio de las obras, comprobar mediante análisis de persona experta en la especie, la presencia de la pareja de referencia y su estado fenológico.

Se respetará el periodo crítico de reproducción en la ejecución de la rotonda Norte y se contará con asesoría que defina con exactitud el periodo crítico de la pareja de referencia y su estado fenológico.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

— BI-2238 errepideko bidegurutzeetatik Oma (35+039 k.p.) eta Ibarra (35+020 k.p.) erreketarako eremuak faunarako pasabide gisa egokitzea gomendatzen da, errepideko konektibitatea hobetzeko, talken ondoriozko balizko zirkulazio istripurik ez izateko eta ibilgailuek basoko fauna harrapa ez dezaten. Bisoi europarraren ugalketarako aldi kritikotik kanpora egikaritu beharko lirateke lan horiek (martxoaren 15etik uztailaren 31ra), betiere Faunaren pasabidea eta perimetro-hesiak diseinatzeko preskripzio teknikoen eskuliburuan (Bigarren edizioa, berrikusia eta handitua) bildutako gomendioak jarraituz. (Garraio azpiegiturek sortutako habitaten zatikatzea murrizteko dokumentuak, 1. zenbakia Ministerio de Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioa. 139 orr. Madril).

— Se recomienda la adecuación como pasos de fauna de los cruces de la carretera BI-2238 con los arroyos Oma (p.k. 35+039) e Ibarra (p.k. 35+020) al objeto de mejorar la conectividad de la carretera, evitar posibles accidentes de tráfico derivados de colisiones así como atropellos de fauna silvestre. Dichas obras habrían de ejecutarse fuera del periodo crítico para la reproducción del visón europeo (15 de marzo a 31 de julio), y siguiendo las recomendaciones recogidas en el Manual de Prescripciones técnicas para el diseño de pasos de fauna y vallados perimetrales. Segunda edición, revisada y ampliada (Documentos para la reducción de la fragmentación de hábitats causada por infraestructuras de transportes, número 1. Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente. 139 pp. Madrid).

Gomendio hori ez da proiektuan sartu, aipatzen diren bidegurutzeak proiektuaren jarduketa eremutik kanpo baitaude. Bisoi europarraren kudeaketa planean adierazitakoa errespetatuko da beti.

Esta recomendación no se ha incluido en el proyecto dado que los cruces a los que se hace referencia están fuera de la zona de actuación del proyecto. Respetándose en todo momento lo indicado en el plan de gestión del visón Europeo.

— Ez dira alboko hankak ezarri behar hegoaldeko biribilgunean, alboko sektoreak hirigintzaren aldetik garatzeko erabakia behin betikoa izan artean behinik behin, Gautegiz Arteagako Plan Orokorraren ingurumeneko ebaluazioan hauxe kontsideratu baita: lur-sail horiek ez urbanizatzea izatea balizko aukeretako bat.

— No deben habilitarse las patas laterales en la rotonda sur al menos hasta que no sea definitiva la decisión de desarrollar urbanísticamente los sectores colindantes, ya que la evaluación ambiental del Plan General de Gautegiz Artega está considerando como una de las alternativas posibles que esas parcelas no se urbanicen.

Biribilgunearen hankak harritxingar-kotaraino eraikiko dira eta trafikoari egokitu gabe utziko dira, landareak birjarriz.

Las patas de la rotonda se construirán hasta cota de zahorras y se dejarán rebejetadas sin habilitarse al tráfico.

— Nahiz eta proiektuaren ingurumen-eraginaren ebaluazioko XVIII. eranskineko atal egokian jasota egon ingurumena lehengoratzeko lanetan ezartzeko hautaturiko espezieak inguruko landare potentzialak direla, biribilgunearen barrualdean Berberis Darwini eta Ceanothus autumnal blue espezieak erabiltzea aurreikusita dago, biak tokiko florako espezieak ez direnak. Horien erabilera soilik apaingarri izateko bi eremuetarako aurreikusten bada ere, jarduketa Biosferaren Erreserbaren barruan proposatzen denez gero, komenigarria da espezie autoktonoak erabiltzea, inguruko ezaugarri klimatikoetara eta edafikoetara egokiak. Hori dela-eta, espezieok aldatzeko eskatzen da.

— Si bien en el apartado correspondiente del Anejo XVIII de Evaluación de Impacto Ambiental del proyecto se señala que las especies seleccionadas para su implantación en las labores de restauración ambiental son pertenecientes a la vegetación potencial de la zona, en el interior de la rotonda se contempla la utilización de Berberis Darwini y Ceanothus autumnal blue, especies ambas ajenas a la flora local. Aunque su empleo se prevé en dos zonas con vocación meramente ornamental, el hecho de plantearse la actuación en el interior de una Reserva de la Biosfera hace que sea conveniente el empleo de especies autóctonas, adecuadas a las características climáticas y edáficas del entorno, por lo que se solicita la sustitución de esas especies.

Landaredi autoktonoa duten landaketak egingo dira, betiere biribilguneetako bide-segurtasuneko irizpideak errespetatuz, landareen tamainari eta hazkundeari dagokienez; izan ere, landare horiek ikuspenean eragina izan dezakete, eta, horregatik, istripu larriak gertatzeko arriskua egon daiteke, biribilguneetako eraztun zentraletan landare-oztopoak jartzeagatik.

Se realizará las plantaciones con vegetación autóctona, siempre en todo caso respetando los criterios de seguridad vial de las rotondas en cuanto a porte y crecimiento de las plantas, dado que pueden afectar a la visibilidad y al riesgo de accidentes graves por plantaciones de obstáculos en los anillos centrales de las glorietas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

— Tokiko florakoak izan beharko dute ereiteetarako eta ur-ereiteetarako haziek, eta belar-landare autoktonoetarako hazi modura egiaztaturik egon behar dute.

Beharkizun hau bete beharko da.

— Sustatzaileak espezie inbaditzailerik gabe mantendu beharko ditu errepideko bazterrak
eta ingurumena lehengoratzeko eta lorazaintzako lanak proposatzen diren
eremu guztietan. Obrak hasi baino lehen, inguru horretan dauden espezie horiek
guztiak kenduko dira, bereziki iparraldean dauden lumak (Cortaderia selloana).

Espezie inbaditzaileen jarduera-eremuak garbi mantenduko dira, bereziki iparraldean.

— Hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio arau orokorrei buruzko urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan jasotakoa kontuan hartu beharko da, baita Eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan jasotakoa ere.

Urriaren 10eko NAI/1007/2017 Agindua eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua beteko dira.

— Drainaketa iraunkorreko neurriak sartu beharko dira egin beharreko urbanizazio jarduketen diseinuan, baita lur gaineko jariatze-urak gutxitzeko eta ubide hartzaileetara isuritako kutsagarriak murrizteko zoru iragazkorrak ere.

Gomendio hauek jarraituko dira

— Ingurumeneko organo honi jakinaraziko zaio lanak hasteko aurreikusitako data bi aste lehenago gutxienez.

Beharkizun hau bete beharko da.

<u>ZUZENKI ONARPENA:</u>

Zerbitzu sustatzailearen txostenean adierazten da aurreikusitako jarduerek ez dutela funtsezko aldaketarik eragiten errepidearen funtzionaltasunean.

Azkenik, honako hau adierazi behar da: Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauko 14. artikuluan xedatutakoaren eta txostenN esaten denaren arabera, zuzenean onartu behar da proiektua.

— Las semillas para las siembras e hidrosiembras deberán ser propias de la flora local y certificadas como semillas de plantas herbáceas autóctonas.

Se cumplirá este requisito.

— El Promotor habrá de mantener los márgenes de la carretera y la totalidad de las zonas en las que se plantean labores de restauración ambiental y jardinería libres de especies invasoras a lo largo de toda su fase de explotación. Antes del inicio de las obras se eliminarán todos los ejemplares de estas especies que existan en la zona, especialmente los plumeros (Cortaderia selloana) que existen en la parte norte.

Se mantendrán limpias las zonas de actuación de especies invasoras, especialmente en la zona Norte.

— Habrá de atenderse a lo señalado en Orden APM/1007/2017, de 10 de octubre, sobre normas generales de valorización de materiales naturales excavados para su utilización en operaciones de relleno y obras distintas a aquéllas en las que se generaron así como el Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

Se cumplirá tanto la Orden APM/1007/2017, de 10 de octubre, como el Decreto 112/2012, de 26 de junio.

— Deben incluirse medidas de drenaje sostenible en el diseño de las actuaciones de urbanización que se van a realizar así como pavimentos permeables que minimicen la generación de escorrentía superficial y disminuyan el aporte de contaminantes a los cauces receptores.

Se seguirán estas recomendaciones.

— Se comunicará a este Órgano ambiental la fecha prevista para el inicio de los trabajos al menos con dos semanas de antelación.”

Se cumplirá este requisito.

<u>APROBACION DIRECTA:</u>

En el informe del servicio promotor se indica que las actuaciones previstas en el proyecto no suponen una modificación sustancial en la funcionalidad de la carretera.

Por último, no queda sino hacer constar que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 14 de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia y en lo indicado en el informe procede aprobar directamente el Proyecto.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

## O I N A R R I   J U R I D I K O A K

**Lehenengoa.-** Goian xedatutakoaren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HAMAIKA MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (2.811.162,59 €) da, eta BEZarekin (% 21), berriz, HIRU MILIOI LAUREHUN ETA BAT MILA BOSTEHUN ETA SEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (3.401.506,73 €), eta lanak egiteko aurrez ikusitako epea 14 hilabete da.

**Bigarrena.-** Ebazpen honetan aurrez ikusitako izapidea Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauko 14. artikuluan xedatutakoaren arabera egin da (14. eta 15. Artikuluak).

**Hirugarrena.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokio ebazteko eskumena, hauetan ezarritakoaren arabera: Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategineko laugarren xedapen gehigarria (testu bategina 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua (haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Araua garatzen duena).

Goian adierazitakoaren ondorioz, idazki hau sinatu duenak honako proposamen hau aurkezten dizu, Bizkaiko Foru Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari aurkez diezaiozun:

## F O R U   E R A B A K I A

**LEHENENGOA.-** «BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometro-puntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan» eraikuntza-proiektua zuzenki onartzea; proiektuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HAMAIKA MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (2.811.162,59 €) da, eta BEZarekin (% 21), berriz, HIRU MILIOI LAUREHUN ETA BAT MILA BOSTEHUN ETA SEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (3.401.506,73 €), eta lanak egiteko epea 14 hilabete da. Espedientean dagoen emandako txostena da onarpena egiteko egintza honen oinarria.

## F U N D A M E N T O S   J U R Í D I C O S

**Primero.-** De acuerdo con lo dispuesto, el presupuesto base de licitación sin IVA asciende a la cantidad de DOS MILLONES OCHOCIENTOS ONCE MIL CIENTO SESENTA Y DOS EUROS CON CINCUENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (2.811.162,59 €) y con IVA (21%) asciende a la cantidad de TRES MILLONES CUATROCIENTOS UN MIL QUINIENTOS SEIS EUROS CON SETENTA Y TRES CÉNTIMOS (3.401.506,73 €). y el plazo de ejecución de las obras será de 14 meses.

**Segundo.-** El trámite previsto en la presente resolución se efectúa de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia (art. 14 y art. 15).

**Tercero.-** La competencia para resolver corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobada por el Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, que desarrolla la citada Norma Foral.

Por todo lo expuesto, el que suscribe tiene el honor de someter a V.I. para su posterior elevación al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de:

## A C U E R D O   F O R A L

**PRIMERO.-** Aprobar directamente el Proyecto de construcción de “Reordenación de accesos y calmado de tráfico en la carretera BI-2238 del P.K. 35+600 al P.K. 37+000, en Arteaga” con un presupuesto base de licitación sin IVA ascendente a la suma de DOS MILLONES OCHOCIENTOS ONCE MIL CIENTO SESENTA Y DOS EUROS CON CINCUENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (2.811.162,59 €) y con IVA (21%) asciende a la cantidad de TRES MILLONES CUATROCIENTOS UN MIL QUINIENTOS SEIS EUROS CON SETENTA Y TRES CÉNTIMOS (3.401.506,73 €) y un plazo de ejecución de 14 meses, en base al informe para la aprobación remitido, que figura en el expediente.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.

BIGARRENA.- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzuari; bai eta Desjabetzeen eta Ukituriko Zerbitzuen Zerbitzuari; eta Ustiapen Zerbitzuari ere.

SEGUNDO.- Comunicar la presente Resolución al Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización; al Servicio de Expropiaciones y Servicios Afectados; y al Servicio de Explotación del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

HIRUGARRENA.- Sail honen bulego birtualean argitaratzea foru erabaki hau, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriko "Informazio publikoaren fasean dauden planak eta proiektuak" atalean kontsultatu ahal izango da, eta aipatzea 2019ko ekainaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren maiatzaren 23ko 2618/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez ebazten baita proiektuaren ingurumen inpaktuko txostena formulatzea eta erabaki honen laburpen bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea

TERCERO.- Proceder a publicar en la oficina virtual de este Departamento el presente Acuerdo Foral, que podrá consultarse en la sección de "Planes y proyectos en fase de Información Pública" de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, haciendo referencia a que en el Boletín Oficial de Bizkaia del 6 de junio de 2019 se publicó la Orden Foral de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural 2618/2019, de 23 de mayo, por el que se resuelve formular informe de impacto ambiental del proyecto, y a publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia un extracto del presente acuerdo

Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzuko burua / Jefa de Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización. PILAR TRUEBA FERNÁNDEZ

*O.E. /Vº Bº*

Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. GORKA ESTEBEZ MENDIZABAL

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 5XCC-YE6L-JZQ6-0H7P en www.ebizkaia.eus.